



5 KUKUKA

Antzerki asteak ez zuen etenik izan asteburuan

Hainbat emanaldi izan genituen asteburuan Kukukaren antzerki astearen harira. Besteak beste Zuebiete eta Landaberriko haurrak, Gazteen taldea eta helduen taldea izan genituen oholtza gainean. Hurrengo aste osoan zehar festak jarraitu egingo du eta maiatzaren 26an festa handia antolatuko dute Kukukaren X. urteurrena modu ezin hobean ospatzeko.

6 TENISA

Eskolarteko tenis txapelketako bakarkako finalak

Michelingo kirolgunean Gipuzkoako eskolarteko txapelketako banakako finalak jokatu ziren larunbatean eta horien artean, Landaberriko Yaiza Navarro eta Saioa Mendiluze ikasleen arteko norgehiagoka ikusi ahal izan zen. Nesken infantil mailako finala jokatu zuten bietako partidua hasi bezain pronto Yaiza Navarro jarri zen aurretik. Saioa Mendiluzek markagailua iraultzeko grina eta gogoa jarri bazituen ere, hutsalak izan ziren bere ahaleginak eta 6-2 irabazi zuen Navarrok azkenean.



Amaitu berri da beste urte batez Ostadar SKT-k antolatzen duen arteo-futbol txapelketa. Aurten-go finalean Buenetxea Txindoki baino gehiago izan zen eta partidua lehiatu eta polit baten ostean 2-1 nagusitu zitzaion. Ligaxkako finalean berriz Naibanek irabazi zuen Trumoiaren aurkako partidua (4-1). Aurten-go kirolari onenaren saria David Martin herriko korrikalariak jaso zuen eta Auzolan saria berriz, Jalguneko begiraleentzat izan zen.

Ostadar SKT-k 2012an antolatu duen XIX. Areto Futbol txapelketa larunbatean amaitu zen. Emozio eta tentsioz betetako final eder baten ostean, Buenetxea izan zen garaile jendez lepo zegoen kiroldegian.

Ligaxkako finala

Trumoi eta Naiban iritsi ziren ligaxkako finalera eta bigarren honen 4-1eko emaitzarekin gailendu zuen Trumoi.

Lagunarteko partidua

Behin ligaxkako finala amaituta, Jalguneko lagunak eta Trumoi taldeak lagunarteko partidua ikusgarria jokatu zuten final handiaren atarian.

Jalguneko jokalariek areto-futbol txapelketan maila ona emango luketela argi eta garbi utzi zuten euren gol eta geldiketen bidez.

Buenetxea txapelaldun handia

Txindokiri 2-1eko emaitzaz irabazi dio final lehiatu baten ostean



Buenetxea eta Txindokiko jokalariek elkarrekin atera zuten talde argazkia, eskutan ikurrina eta garaikurrak zituztela.



2012ko kirolari onenaren saria David Martinek jaso zuen eta Auzolan saria berriz, Jalgune elkarteko begiraleentzat izan zen.

Auzolan eta kirolari onena

Ostadarrek omenaldi txiki bat egin nahi izan zien David Martin eta Jalguneko begiraleei. Lehenari kirolari onenaren saria eman zioten bere kirol ibilbide oparoagatik eta Auzolan saria berriz Jalguneko begiraleentzat izan zen pertso-

na ezinduekin egiten duten lan guztia eskertu asmoz.

Txapelketako sarituko

Arratsaldeko garaile bakarra ez zen Buenetxea izan, txapelketako jokalaririk onena Gari-koitx Zurriarain (Buenetxea) izendatu baitzuten, atezainik

onena Jokin Alaña (Txindoki) eta txapelketako golegile nagusia Lander Castro (Balerdi) izan baitziren.

Finaleko jokalaririk onena berriz, Javi Calvo (Buenetxea) izendatu zuten. Sari guztiak Pablo Barrio herriko alkatearen eskutik jaso zituzten.

ALBA

ARROPA DENDA

KOOKAI
NAFNAF
YERSE

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Bideo Lagunak

Betiko zerbitzua
gure aholkularitza
onenarekin

UDABERRIKO ESKAINTZAK
BEGIRATU!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Adituak dio



Esti Garmendia

Kukukako kidea

Hamar urte pasa dira DBHko liburutegian egin genuen lehenengo bilera hartatik. Irati, nire alaba zaharrenak 6 urte zituen eta ni txikiak haurdun nengo. Biak hasi ginen antzerkian eta 1.º Antzerki asteko prentsaurrekoan Garazi, txikiak, 3 hilabete zituela kartela eusten zuen. Nork esan behar zigun lehenengo antzerki aste hartan gaur egun 15 eguneko asteak egingo genituela.

Antzerkiak asko eman dit baina ez dakit zerk eraman nauen astero-astero kultur etxera. Antzerkiak ala taldeak. Famili batetan bihurtu gara eta famili guztietan bezala haserretu gara, elkarrekin negar egin, elkarri lagundu, esperientzi zoragarriak konpartitu eta pertsona zoragarriak ezagutu ditut.

Haurrek eta gaztetxoek ere asko eman didate. Eta nik, dakidan gutxi hori erakusten saiatu naiz. Ez da erraza erakustea. Ez da erraza taldeak gai bat adostea, istorio bat sortzea ala pertsonaia erakitzea astean behin ordu bat elkartzu miraritxoak egiten ditugu oholtzan. Nire azaletan bizitakoak ikasleengan ikusi ditzaket astero-astero...aldaketa txikiak dira, askotan ere gurasoek somatzen dituztenak. Aldaketa txiki horietan sinesten dut. Irati, aurten nirekin laguntzaile izan dut DBH-1 mailako taldean. 10 urte ondoren gure gaztetxoei ere beraiek ikasitakoa txikiei erakusteko aukera ematen diegu... ez al da miraritxo bat nire 15 urteko alabak bere denbora librean nirekin etorri nahi izatea? Sinesten dut. Sineste hutsa askotan nahikoa ez delako...hurrengo ikasturtean ikasle bihurtuko naiz. Miraritxoak sortzeko tresna bila joango naiz Teatro Antzerki Eskolara, Donostiara. Kukukan jarraitzeko asmoa ere badut, uzten badidate behintzat!

X. Antzerki eta Dantza astea martxan dago. Datorren, larunbata 26, desfile eta festarekin emango diogu bukaera. Animatu zaitzete guztiak gurekin ondo pasatzera! Gonbidatuak zaudete kukukide, kukuzale eta kukulagun guztiok! Zorionak Kukuka! Beste hamar ere beteko ditugu, ez? KUKUKERA bat naiz eta harro nago!

Hollywood txikia

Kukukaren antzerki eta dantza hamabostaldian murgilduta gaude erabat. Talde honek aurten betetzen ditu bere hamar urteak eta zalantzarik gabe, egun dituen ikasle kopuruari erreparatuz, 700 inguru, arrakastatsua eta oparoa izan da Zabaletako auzotik eguner arte egindako bidea. Esan gabe doa, ikasle guzti hauek euskaraz mintzaten direla bai antzerkian baita dantza eskoletan ere eta horrek badu bere gainbalioa.

Antzerkiari helduz. Herrian izan dira beste talde asko eskolan, edota parrokiaren baitan, gaurko argazkia bezala, lan ezberdinak taularatu dituztenak. Maila txiki edo handiagoko batean publikoaren aurrean jarri dira herritar asko. Berezik azpimarragarria da herri honetan antzerkiarekiko

dagoen zaletasuna, metro karratuko Lasarte-Orian dagoen artista kopurua neurtuko balitz, Hollywooden adinakoa litzateke ia seguru! Herriko alkatea antzerki idazlea da... Fenomeno honen arrazoia ordea zein izango? Betidanik izan dira lasarteoriatarrak antzezle.

Egia esan, honen lekuko bizia izan daiteke Santa Ana Parodia bera. Ekimen honen jatorria oraindik ez dago guztiz argi baina herrian errotuta dago betidanik eta akaso hau izan da zaletasun honen eragile edo motor isila urteetan. Argi dagoena da artista ugari dagoela gure artean eta Kukukak erakartzen duen jendea kontutan izanda, aurki Lasarte-Oriako aktoreek Hollywood konkistatzeko moduan izango direla. Hori bai, konkista euskaraz egingo da.

Hitz eta pitz

Zer iritzi duzu Antzerki eta Dantza Asteaz? Joaten al zara ikustera?



Inma San Sebastian

Urtero ikusten ditut hiruzpatalau saio: dantza, nirekin antzerkian aritu ziren adiskideen eta alabaren lagunen antzerkiak... Kategorikoa da. Gehiago, ez dut uste beste inon horrelakorik dagoenik. Horrenbeste gazte antzerkia eta dantza egiten ikusita, oilo ipurdia jartzen zait. Esan didate, Orion ere hasiko ote diren talde batekin, eta hori Lasartetik zabaltzen ari da, inbidia pixka bat sortu dugu.



Maitere Izagirre

Oso ondo dago. Gustura joan naiz bilobarekin ikustera, egia esan, bere gustukoa zen nirea baino gehiago, ume txiki txikiak ziren eta. Antzerkia asko gustatzen zait. Herrian, antzerkian, hainbeste lagun aritza eta herritarrek parte hartzeko aukera edukitzea oso ondo iruditzen zait. Nik ez nuke parte hartuko baina lan espeziala egiten ari dira. Ni ikustera joaten naiz.



Iñigo Rodriguez

Ez, ez daukat ideiarik ere, Antzerki eta Dantza aстера ez naiz joaten, ez naiz inoiz joan, ez dut ezagutzen. Dena den, ez naiz antzerki zalea, ez naiz inoiz antzerkian aritu. Ehundaka lagun ari direla herrian antzerki asteaz? Ba ez nekien, ez neukan horren berririk. Zinema gehiago gustatzen zait. Kultur Etxera ez naiz asko joaten, lehen, garai batean, musikara.



Iñigo Encinas

Primeran dago, beste gauza batzuek egiteko aukera eskaintzen du. Umeek disfrutatu egiten dute eta helduek ere bai. Bestela ez daukazu zure barrukoa ateratzeko aukerarik. Pailazo xamarrak gara eta aukera eman ez gero, egingo genuke. Denbora edukiko banu... Semea oso gustura joaten da, pilota eta futbolearen ari zelako utzi zuen, baina berriro itzuli da. Bera ikustera joan naiz.

Iruditan



Antzezlana San Pedro elizako lehen solairuan zegoen aretoan . F. Galardi

Antzerkiak beti izan du lekua herritarren artean

San Pedro parrokiaren lehen solairuan zegoen aretoan antolatzen zituen bertako aisialdi taldeak antzezlana. Haur zein gaztek hartzen zuten hauetan parte. Kasu honetan 40. hamarkadako dugu irudia eta ezkerretik eskuinera honakoak dira oholta gainean agertzen zaizkigunak, Anastasi Intxausti, Erauskin, Tomasa Garaialde, Cogollo, Antoñita Euba eta Maria Pilar Izagirre. Urtean behin egin ohi zituzten antzezlana hauek eta bertara ikustera joaten ziren senide eta lagunak. Nahiz eta kasu gehienetan gazte ia guztiak hartzen zuten parte.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366 858, 943 371 448, G-20407557 **Legezko gordailua:** SS513/93 ISSN: 1134-0053 **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800 **Erredakzioa:** Nerea Ezagirre, Jon Altuna Iza, Mairde Azurmendi, Jon Altuna Egitegi **txintxarri@ttakun.com** **Publizitatea:** Arantza Artola, **publizitatea@ttakun.com** **Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

EUSKARA



Heziketa Zikloak eta Batxilergoa euskaraz eskaintzen duten Buruntzaldeko ikastetxeetako ordezkariak Euskara zinegotziaren batera.

Euskaraz ikasi ikastolatik at

Buruntzaldean lanbide heziketa zikloak eta batxilergoa euskaraz egiteko aukerak aurkeztu dituzte

Buruntzaldeko Udalek 2012-2013 ikasturtean Lanbide Heziketa zikloak eta Batxilergoa euskaraz ikasteko aukeren berri eman zuten ostiralean Usurbilen eskaintako prentsaurrekoan. Era berean, lanbide heziketarako ikas-materialak euskaratzeko laguntzen berri ere eman zuten.

Ikasturtea amaitzean dago eta DBH4 ikasten duten gazteek Batxilergoa edo Lanbide Heziketa zikloa egingo duten erabakiko dute. Hauei laguntzeko, Buruntzaldeko Udalek gure eremuan euskaraz ikasteko dauden aukera anitzak aurkeztu zituzten ostiralean.

Alaitz Aizpurua Usurbilgo euskara zinegotzia, Ainara Rodriguez Andoaingo alkateordea eta euskara zinegotzia, Koldo Ulanga Usurbilgo GLBHI-ko ordezkaria eta Manu Agirre Andoaingo La Salle-Berrozpe ikastetxeko irakaslea izan ziren aurkezpena egiten zutenak.

Prentsaurrekoan Udala eta ikastetxeen arteko elkarlanean balio azpimarratu zen.

Izan ere, Ainara Rodriguez-ek aipatu zuen legez, 10 urte dira Buruntzaldeko DBH ondorengo ikasketetan euskararen erabilera hobetzeko plana onartu zenetik.

“Gure eskualdean goraka joan da bai batxilergoen, baita lanbide heziketa zikloetan ere ikasketak euskaraz egiten dituztenen kopurua. Hori poztekoa da. Baina oraindik bada, zer hobeturik,” adierazi zuen.

Esperientzia

Koldo Ulanga eta Manu Agirrek lanbide heziketa zikloen

berri emateaz gain, haien ikastetxeetan ematen ari den bilakaeraren berri eman zuten, hala nola, ikasleen eskaera handitu dela eta irakasleen prestakuntza euskaraz egiten dutela ere.

Gainera, enpresek ere praktikak euskaraz egiteko lan egiten dutela azpimarratu zuten.

Eskuorria

Era berean, Udalek ikastetxeen ikas-materialak euskaratzeko ematen dizkieten dirulaguntzei buruz ere mintzo ziren prentsaurrekoan.

Honetaz gain, 1996 edo 1995 urteetan jaiotako gazteei etxera Buruntzaldeko herrietako eskaintza zehatza azalduz esku orri bat bidaliko zaiela jakitera eman zuten.

Eta adin honetako ikasle eta haien gurasoak animatu nahi dituzte ikasketak euskaraz egiten jarrai ditzaten.



MUNTTERI-AEK

Pintxo goxoak nola egin ikasten

Muntteri-AEK euskaltegiko goizeko ikasleek ostegunean egiteko errazak diren pintxo goxoak ikasi zituzten Lordi Etxeondo Zarautzko Aiala ostalaritza eskolako irakaslearen eskutik.

Xirimiri elkartearen bildu ziren ikasleei patata minak, hanturgesa txikia ganba eta tipulin hostoekin eta foie tarrina tosta nola egin azaldu ziren Etxeondok.

Euskaltegiko ikasleek azalpenak adi jarritu zituzten, batzuk pintxoak egiten lagundu zuten eta errezetak ikasteaz gain, sukaldaritzako hiztegia ere landu zuten.

OSTADAR MENDI SAILAK

Izotza eta suaren mundutik barrena

Ostada SKT-k Mendi sailak, Kutxaren laguntzaz, “Islandia eta Groenlandia” proiektzioa eskaini zuen ostegunean.

Honetan Asier Aranzabal eta Mila Gallastegik bi irla zoragarri hauetan dauden paisai izoztu edo labaz osatutako basamortuak aurkeztu zituzten Manuel Lekuonako hitzaldi aretora hurbildu ziren herritarrei. Amaieran hainbat galdera erantzun behar izan zituzten.



GIZARTE-ZERBITZUAK

Sexualitatea eta oztopoak

Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuek antolatuta Aingeru Mayor Emeki-ko kideak "Pozez beteriko sexualitatea" hitzaldia eskainiko zuen ostegunean Villa Mirentxun.

Honetan, egungo gizaratek ezartzen dituen sexu estereotipoek sexualitatea garatzeko sortzen dituzten oztopoak aztertu zituzten. Plazerrari buruz ere mintzo zen eta urteak igaro ostean, pertsona adinduak izatean sexualitate bozkariotsua izatera iritsi daitekela ere azaldu zuten.

PALOMO LINARES ELKARTEA

45. urteurrena ospatzen

Palomo Linares elkarteak bere 45. urteurrena ospatu zuen atzo. Urtero legez, Arantzazuko Ama Birjinaren parrokian hildako kideen ohorez meza egin zen. Jarraian, elkartearen kideak eta eremuko zezen-zaletuen elkartearen ordezkariak bazkari goxoa dastatzeko aukera izan zuten.



Metal gogorra eta fado goxoak - Ostiral gehienetan bezala, Lasarte-Oriak musikarekin izan zuen zita berriro ere. Oraingo honetan, bi musika estilo oso desberdin ikusteko aukera izan genuen, metal doinu bortitzak batetik eta Portugalgo doinu folklorikoak bestetik. Abend kafe-antzokian izan ziren Korumbá eta Vita Imana metal taldeak. Lehenak kontzertu bizia eskaini zuten eta Vita Imana berriz, estatu mailako metal-aren munduan erreferente handia denez, kanpoko jende asko etorri zen energia uholde bihurtu zen kontzertuaz gozatzera. Jalgin, Ventos de Saudade taldeak giro goxoa jarri zuen fado doinuez girotuta. Kalitate handiko kontzertuak izan ziren denak.

Kuba Libre, antzerki bidaiak karibera

- ▶ Kukuka eskolako adinduek eurek sortu dute ikasturtean zehar "Txapas" irakaslearekin batera
- ▶ Ostiralean eskainiko dute 19:00etan kultur etxean ▶ Askatasun handia izan dute aktoreek

Kuba Libre izeneko antzerki-lana sortu dute Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako kiderik zaharrenek. Datoren ostiralean eskainiko dute arratsaldeko 19:00etan kultur etxeko aretoan. Miren Zumeta, Bego Bergara eta Juan Segurola aktoreekin eta Joxe Mari Berasategi Txapas irakaslearekin elkartu gara aurten Kukuka eskolaren barruan sortu berria den helduen antzerki talde bitxi honi eta prestatu duten antzezlanari buruz hitz egiteko.

Jon ALTUNA IZA

60-75 urte arteko hamabi lagun dira, "saltsa askotan ibiltzen direnak", eta gaizki hartzen dute norbaitek erretiratu edo jubilatuen taldea dela esaten badu. Gehienak jubilatutako diren arren, erretiratu nahi ez duten erretiratuak dira, ora indik bizitzan egiteko asko dutenak eta nabari da hori.

Oro har, "artistak" dira aurten Kukuka eskolan antzerkia ikasten hasi den talde "berezi" honetako kideak eta "gazte" hauek ikasturtean egindako

lanaren emaitza da "Kuba Libre". Talde amateurra da eta eurek sortu dute guztia, antzerki-lana, arropak, eszenografia... Joxe Mari Berasategi Txapas urnietarraren laguntzarekin. Honen ustez, "magia egiten dute, denetarik lortzen dute".

Hamabi dira guztira, Juan Segurola izan ezik denak emakumezkoak, "beti bezala, gizonak zero patatero" dio Bego Bergarak. "Oilar bakarra eta hamaika oilo" Txapasek.

Beraz, emakumei gizonezkoen papera egitea tokatu zaie, esaterako, Miren Zumetari berak azaldu digunez. Erdiek



Taldea, Biyak Bat elkartearen sarreraren emanaldi aurreko entsegua hasi aurretik, "Txapas" irakaslearekin.

egiten dute gizonezkoarena eta "oso ondo gainera" irakaslearen ustez. Juan Segurola, aldiz, kubatar beltzarana izango da.

Oro har, gustura ari dira, oso ondo pasatzen dute, Bego Bergarak emanaldia hurbildu ahala estutzen ari dela aitortu

arren: "Ez dut nahi beste gozatzen, saltsa honetan ez dago bestetako lasaitasunik".

Ikasturtean zehar sarritan egin dute barre eta hori da Miren Zumetaren beldurretako bat: "Kostatuko zaigu gero han parrarik ez egiten".

"Kuba Libre" sortzeko ez dira testu batetik abiatu, norberaren esperientziatik, inguruko etatik edo anekdotetatik baizik. Ikasle bakoitzak berak finkatu ditu Kubara doan koadrilako pertsonaiaren ezaugarriak, "poliki poliki" irakasleak esan digunez. Txapasen iritzi "oso ondo moldatzen dira oholztan. Gidoia sinopsi modukoa da eta horrek askatasuna ematen dio aktoreari. Baina, libre uzterakoan kontuz ibili behar da istorioak sinesgarritasunik galdu ez dezan, eta hori oso ondo ziurtatzen eta egiten dute".

Dena den, ez dute "Kuba Libre" antzerki-lanaren testua hitzez hitz eta zehatz mehatz idatzita. "Zirriborro bat zen hasieran eta sinopsi antzeko bat bukaeran". Ez zen hori asmoa, baina istorio baten barruan lotuta dauden sketch ezberdinak dira, taldekideen ustez, eszenaz eszena, sketch-en bilduma. "Eszena motzak, luze-gia ez egiteko". Segurolak azaldu digunez, emakumei hitzegiten utzi gero, ezin jakin noiz arte segituko zuten, beraz, garbiketa egin, ideia xeblebre zein bitxiei heldu, moldatu eta onena utzi dute.

Joxe Mari Berasategi "Txapas" Aktorea eta antzerki irakaslea

"Buru-belarri ari naiz irakaskuntzan"

Urnietan eta Lasarte-Orian irakasten du antzerkia Joxe Mari Berasategi "Txapas" aktore urnietarrak. "Taldea pila ditut eta kontentu nabil honetan buru belarri" esan digu Goenkale telesailari esker eza-egin egin zen aktoreak.

Ora indik ere ageri da tarteka, baina azken urteotan ez du telebistan lanik egin. "Errepikapenak dira. "Goazen" duela lauzpabost urtekoa da, baina hainbeste aldiz errepikatzen dute... Orduetik ez dut telebistarako ezer egin" ziurtatu digu.

Madriren ere ibili zara?

Bai aspaldidanik. Baina beti joan etorrian, saltoka. Talesai-

len batean papertxoren bat izan dut aurten, baina oso ondo nago hemen, familia ere izan nuen eta.

Noiztik ari zara irakasle?

Iazko ikasturteetik. Muntai pila egin ditugu Urnietako bi ikastetxetan, hiru hilabeteko emanaldia. Oso bizia izan da.

Nolakoa da Lasarteko taldea?

Erabat desberdina eta oso ona. Jakinminez nago emaitza ikus-teko. Nahi badute behintzat izango dute hemendik kanpo emanaldiak egiteko aukera.

Zer iruditzen zaizu, oro har, Kukuka egiten ari den lana?

Inbidia ematen du, eredugarria da. Pozgarria da gaztetxotatik kalitatezko gauzak egiten dituztela ikusteak. Ikaragarri ona. Gozamenak.

Zertan moldatzen zara hobeto, aktore ala irakasle-zuzendari?

Arraroa egiten zait, urte askotan izan naiz eta aktore. Antolatzaile lan hau gustatzen zait, baina sofritu egiten dut ez dagoelako nire esku. Esaterako lan bat ordu laurdenu luzatu dela ikusten badut...

Eta aktore aritu zarenean, zer duzu nahiago, antzokian ala kameraren aurrean?

Txikitan, Urnietan, Lourdes Iriondo, Xabier Lete eta beste batzuekin antzerkian aritu nintzen, baina gero behin Donostian eta Madriren aste dramatikoak ikasi nuenetik, ia dena kameraren aurrean.

Duela urte pare bat, Bilbon, Arriagan, gauza polit bat egin nuen hiru hilabetez, eta gertu-gokoa da, aktoreak saria izaten du. Ikusiko dute ikasleek merezitako txaloak jasotzen dituztenean, hori gozamenak! Zinean, aldiz, egun osoan han egongo zara eszena bat grabatzeko eta inork ez zaitu txalotzen.

Erreportaje osoa txintxarri.info webgunean



Errazioak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Entsaladak

Eta ekainetik aurrera
eguneko menuak

Tel.: 943 37 17 42

Largonea Kalea, 1
20160 Lasarte-Oria

facebook.com/ArkupeTaberna



Emozio handiko momentuak utzi zituen helduen taldeak interpretatutako "Ixiltasunaren ahotsak" emanaldiak.

Antzerkiak ez du etenik

Kukukaren X. antzerki asteak aurrera darrai

Haur, gazte eta helduen txanda izan zen asteburuan Kukukaren antzerki astearen barnean. Ostiralean txikienek euren dohainak erakutsi zituzten, gazteak maila polita lortzen ari direla garbi utzi zuten eta helduek berriz, kalitate handiko antzerkia eskaini zuten. Horretaz gain, euskal dantzek eta dantza garaikideak ere izan zuten tokirik kultur-etxeko emanaldi desberdinetan.

Jon ALTUNA EGITEGI

Indartsua izan da asteburua antzerkiari dagokionez, indartsua eta beta. Ostiraletik hasita igandera arte, ez zen etenik izan Manuel Lekuona kultur-etxeko areto nagusian.

Ostiral arratsaldean, gazte-

txoek bi antzerki eskaini zituzten "Mimoak beti berriketan, nola?" eta "Basoan galduta obrak hain zuzen. Gauean berriz, gazteek umorea ardatz izan zuten "Shakespeare osoa gutxigorabehera" antzezanarekin barre algaraka ipini zuten ikuslego guztia.

Larunbatean bestelako kon-

tuak landu zituen helduen taldeak. "Ixiltasunaren ahotsak" obra sakonak, Mendebaldeko Sahararen egoera izam zuen aztergai, eta bati baino gehiagori ileak lastu zitzaizkion aktoreen interpretazioarekin.

Maiatzaren 26an festa

Hamargarren urteurrena modu ezin hobean ospatuko dute Kukukakoek datorren larunbatean, egun osoko jaialdi handia antolatu baitute.

Bertan, desfilea, erromeria, bazkari herrikoia, bertsolariak, batukada, antzerkia eta kontzertuak izango dira besteak beste.



Gaztexoek euren antzerkirako dohainak plazaratu zituzten ostiraleko emanaldietan.

Denetarik momentu eta bizipenak utzi zituen asteburuak antzerki astearen barnean.

Osasun-azterketak gidariak
Reconocimientos Médicos armak
 conductores armas

Geltoki 2 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 374224



TENISA.-

Tenis festa handia kirol gunean

Landaberriko neska eta mutilen alebin taldeek txapelkunordearen saria jaso zuten

Tenisak bere lekua izan zuen larunbatean Michelin-go kirol gunean. Eskolarteko txapelketako banakako finalak izan ziren bertan eta hauen artean, Landaberriko Yaiza Navarro eta Saioa Mendiluze ikasleen arteko norgehiagoka ikusi ahal izan zen.

Michelingo kirolgunean Gipuzkoako eskolarteko txapelketako banakako finalak izan ziren larunbatean eta hainbat izan ziren gaztetxoak animatza hurbildu ziren guraso eta lagunak.

Eguerdiko hamabietatik aurrera, alebin, infantil eta kadete mailako gaztetxoek kontsolazioko finalak eta final nagusiak jokatu zituztenak.

Xabier Gonzalez, Landaberriko ikastolako entrenatzaileak azaldu zigunez, txapelketa Aste Santu aurretik hasi zen eta guztira, 65 tenis-jokalari izan dira txapelketan lehiatu eta horietako ugari lasarteoriatarak izan dira.

Herritarren finala

Gainera, larunbatean, hainbat finalatan ikusi ahal izan genituen herritarrek eta nesken infantil mailako finalean, Landaberriko ikastolako Yaiza Navarro eta Saioa Mendiluze

izan ziren aurrez aurre.

Ederki astindu zuten biek pilota, baina hasieratik Yaiza Navarro jarri zen aurretik. Nahiz eta Saioak ahaileginak egin, azkenean 6-2 irabazi zuen Navarrok.

Herritarren finala

Honela, Yaizaz gain, maila bakoitzeko irabazleak honako hauek izan ziren: kadete mailan Iñigo Bereciartua eta Patricia Puertaolas infantil mailan, berriz, Borja Martin eta azkenik, alebin mailan, Maria Egaña eta Mikel Pelaez.

Dominak eta garaikurrak banatzen Lasarte-Oriako alkatea Pablo Barrio, Asier Sarriegi Foru Aldundiko kirol arduraduna, Jesus Diez LOKE elkarteko lehendakaria eta Xabier Gonzalez entrenatzaileak izan ziren.

Taldeko txapelketa

Honetaz gain, nahiz eta taldeko txapelketa martxoan



Sari banaketaren ostean, gaztetxo guztiak bildu eta haien domina eta garaikurrekin argazkia atera zuten.

amaitu, lehiaketa honetako alebin mailako sari banaketa ere egin zuten.

Honetan, bai neska, baita mutilen txapelketan ere, Donostiako Mary Ward ikasleak izan zen garaile.

Era berean, txapelkunorde izan ziren Landaberriko ikastolako eska eta mutilen A taldeak.

Squash txapelketa

Bestalde, gaurtik aurrera, Squash txapelketa sozialeko bigarren fasea jokatzeko hasiko da udal kiroldegian.



Landaberriko ikastolako nesken arteko buruz burukoan, Yaiza Navarrok fin jokatu zuen.

IGERIKETA.-

Villamediana Gipuzkoako txapelkun

Gipuzkoako eskolarteko txapelketa eta alebin txapelketan domina uza handia lortu zuten Buruntzaldea IKT-ko gaztetxoek. Guztira, Gipuzkoako txapelkun bat, zilarrezko domina eta 4 brontzezko eskuratu zituzten bi lehiaketetan.

Alebin mailan, Nahia Jie Villamedianak nagusitasun osoz lortu zuen lurraldeko txapela.

Maila honetako igerilariek "igerilari osoa" derituz txapelketan parte hartu zuten. Honetan lau estiloetako probak egin, 50 m. tximeleta, 100 m. bizkar, 100 m. bular eta 100 m. libreak eta guztietan hobereena denak lortzen du titulua.

Eskolarteko txapelketa

Bestalde, eskolarteko txapelketan hainbat marka eta domina lortu zituzten 2000 urteko neskek eta 1999 urteko mutilen parte hartutako probetan.



Nahia Jie Villamediana Gipuzkoako txapelkun izan zen.

BURUNTZALDEA

Ainara Garciak 100 m. bular proban zilarrezko domina eta 200 m. bular proban brontzezkoa lortu zituen.

Maialen Casado 200 m. libre proban hirugarren izan zen eta 100 m. libre proban seigarren.

Nesken bi errelebuak, 4x100 m libre eta estiloak, brontzezko postuan amaitu zuten.

Mutiletan, berriz, Iñaki Etxebestek 200 m. libre proba seigarren postuan amaitu zuen eta 100 metro libreetan bosgarren izan zen.

Borja Apeztegia entrenatzaileak aipatu digunez, lortutako emaitzei esker, Ainara Garcia gaztetxoak maiatzaren 26an Zarautzen izango diren Euskadiko Eskolarteko jokotarako sailkatu da.

ATLETISMOA.-

Uribe, Rodriguez, Bruño eta Busto Gipuzkoako txapelkun

Kadete, jubenil, junior eta beterano mailako atletikariak Gipuzkoako txapelketako jardunaldiak izan zituzten maiatzaren 12 eta 13an Donostia eta Tolosan. Huetan Jon Ander Bruño, Itoitz Rodriguez eta Santos Uribe gazteak eta Santos Uribe beteranoa Gipuzkoako txapelkun izan ziren.

LOKEko kadeteak fin ibili ziren asteburu osoan. Itoitz Rodriguezek luzera jauzian, altueran eta 100 metroetan lehenengo postua eskuratu zuen eta Eneritz Bustok altueran.

Ane Galardi bigarren izan zen luzera jauzian eta 100 metroko lasterketan. Maria Eugi, berriz, hirugarren izan zen luzeran eta laugarren 100 m.-ko proban.

Maider Rekondok pisua eta jabalinan zilarrezko domina lortu zuen.

Jubenil mailako luzera

jauzia proban Jon Ander Bruño txapelkun izan zen.

Eta Santos Uribe Zumeatarren taldeko beteranoak 5000 m. martxa proban bere adineko irabazlea izan zen.

Hau guztiaz gain, Itoitz Rodriguez 300 m. hesi-lasterketan probako irabazlea izan zen, apirilaren 28an.

Eskolartekoa

Bestalde, Landaberriko ikastolako gaztetxoak Gipuzkoako eskolarteko txapelketan izan ziren.

Eneritz Busto altueran irabazle izan zen, 150 metroko lasterketan eta 80 m. hesi-lasterketan bigarren izan zen. Idoia Olasagasti bi proba huetan hirugarren izan zen eta Oihana Igarri 7. izan zen disko jauztiketaren eta 80 m. hesi-lasterketan.

Hirurak Gipuzkoarekin Euskadiko Jokotaren parte hartuko dute.

Agenda

Ekainaren 8a arte, Manuel Lekuona Kultur-etxean



Danborradaren historia irudietan

Lasarte-Oriako danborradako 1947tik gaur egunera arteko argazki erakusketari jarri dute. Honetan San Pedro jaietako eta herriko elkarten urrezko eta zilarrezko ezteietako 300 irudi baino gehiago ikusi ahalgo dira. Argazkiekin batera proiektzio bat, danborradako jantzi, danbor eta kupelak ere ikusgai dira.

Kukuka Antzerki eta Dantza eskola X. urteurrena

Larunbata 26 Okendo plazan

09:00etan, diana dultzaineroekin.
11:30etan, Kukuka antzerki eta dantza eskolako ikasleen desfilea.

13:00etan, Erromeria eta muxikoak Amalur trikiti eta pandero eskolaren eskutik.

14:00etan, bazkari herrikoia.

15:30etan, bazkalondoa kantuak, Ahuen taldea, bertsolariak, Jalguneko lagunak eta eskolako helduen taldeen emanalditxo bat.

16:30etan, batukada.

17:00etatik aurrera, Añorgako antzerki taldeko saioa, Kontu kantoiaren ipuin kontaketa eta kale animazioa.

18:30tik aurrera, Manillaren Iturriaga taldearen kontzertua eta Alain eta Naken Djen saioa.

23:00etatik aurrera, The Garaje-kuak, Gabeko Itzalak eta Trikiho-tsen kontzertuak.

Lasarte-Oria

X. Antzerki eta Dantza astea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Astelehena 21, 19:00etan

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko LH1-2 taldeak "Hodei Tripaundi" lana eskainiko du; LH3 eta LH4ko ikasleek, berriz, "Aztia" antzezlan. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Asteartea 22, 19:00etan

Landaberriko LH4 mailako taldeek "Azken txaluparen kondaira", "Hilketa misterioitsua" eta "Goazen ilargira" antzezlanak taularatuko dituzte. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Asteazkena 23, 19:00etan

Landaberriko DBH3ko ikasleek "Juno" lana aurkeztuko dute; DBH4koek aldiz, "Xagu tranpa" lana. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Osteguna 24, 19:00etan

Landaberri ikastolako eta Kukukako DBH1 mailako gazteek inprobisaketak egingo dituzte. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA Ostilara 25, 19:00etan

Kukukako helduen taldeak "Kubalibre" lana antzeztuko du. Euskaraz.

Ostilara 25, 22:30etan

Helduen taldeek "Maitasun erratuak" eta "Piztiak dio" lanak antzeztuko dituzte. Euskaraz.



Erakusketak

JALGI KAFE-ANTZOKIA Aste honetan zehar

Saharako errefuxiatuak bizi diren Tindouf kanpamentuetako argazkien erakusketak.

Herritarren txokoa

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan maiatzaren 28ean, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Herrira-ren elkarretartea

Hileko azken ostiralero bezala, maiatzaren 25an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Maria Auxiliadora-ren omenezko meza

Maiatza Maria Auxiliadora-ren hilabetea denez, maiatzaren 27an, igandean, eguerdiko 12:30ean Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Ama Birjina honen ohorezko meza ospatuko da. Meza amaiztean luntx txikia konpartitzeko aukera egongo da.

Galdutako gauzak

Lehenago larunbatean, maiatzaren 5ean, Loidi-Barrengo pilotalekuan

antolatu zen Amaraun jaialdian, Batman-en kapa grisa eta beltza galdu zen.

Norbaitek aurkituz gero, dei dezala 636694375 telefono zenbakira.

Txakurra galdu da

Thor hiru urteko Spaniel Bretona galdu zen apirilaren 21ean Cocheraseko bidegorriaren inguruan. Kolore gorrixa du txuri gutxirekin. Mikrotxipa dauka.

Norbaitek aurkitu badu honako telefonoetara deitzea eskertuko genuke 687 571 037 eta 670 950 785. Sarituko da.

Iradokizunak Udalari

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Eskutitza

Lasarte-Oriako PSE alderdiak atek itxi dizkigu

Lasarte-Oriako PSEk behin eta berriz herritarrak hartzeko atek irekiak omen dituela esan eta esan ari da. Lan horretarako ere ordutegi bat jarri du eta udalaren soldatapeko pertsona bat jarria du. Baina PSEren agintaldietan ikasi genuen bezala, herritarrak eta herritarrak daude. Batzuk beti atek itxiak topatu izan ditugu eta oraindik ez dira aldatu, atek ixten jarraitzen dute eta.

Herrira, euskal presoaren politikoen eskubideen alde lanean ari den herri ekimenak eskuz bidaliriko gonbidapena luzatu zion PSE alderdiari beste alderdiei bidali gisan, erantzunik izan ezenez, Lurdes Acebedori aurrez aurre bilera baterako gonbidapena luzatu genion eta berak, Jesus Zaballosekin hitz egin ostean, ezeko borobila jaso genuen. Ateak itxita ditugula argi azalduz.

PSE alderdiak, biziki defendatzen omen ditu giza eskubideak, baina interes zehatzeko giza eskubideak. Ez dira konturatzen ordea, giza eskubideek ez dutela interesik, ez luketela izan behar behintzat. Euskal preso politikoen

eskubideak ez ote dira urratzen? Ala presoek ez ote dituzte eskubideak? Herrirak, jakin badaki gure eskubide batzuekin ehuneko ehuneko ez direla ados izango PSEko kideak, baina hitza bera ere ukatzea tamalgarrria da. Euskal presoak Euskal Herriratzea eskatzen dugu, ez dugulako beste senide bat galdu nahi. Gaixotasun sendaezina duten presoak askatzeko eskatzen dugu, beraien gaixotasuna ahalik bezain ongien zaindu izan dadin kalean. Eta azkenik, bizi osorako espetxe zigorrak bertan behera uzteko eskatzen dugu, 6 herritarrek 20 urte harago daramate espetxean. Mendeku politikak bertan behera utz ditzaten espainiar agintariak.

Honetaz gain argitu behar dugu eta eskertzen diegu, Bildu, EAJ-PNV eta LOHP-rekin biltzeko aukera izan dugula eta atek zabali aurkitu ditugula.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Lasarte-Oriako Herrira ekimena



Xirimiri elkartearen goraino bete zen bazkari herrikoia egiteko.



Euskal Herriko plaza guztietan bezala, Okendon ere argazki erraldoia atera zuten presoek babesa emateko.



Joxe Balerdiren argazkiaren aurrean, herritarrek larrosa zuriak ipini zituzten.

Elkartasun olatua Okendon

Herriko plaza bete zuten, kartzelak hustu asmoz

Maiatzaren 19an plazak betetzeko deialdia zabaldu zuen Herria ekimenak Euskal Herri osora. Lasarte-Oriako Okendo Plaza ez zen gutxiago izan eta presoekiko elkartasuna adierazi zuten lasarteoriatarrek egun honekin bat eginez. Goizean herri-kirolak izan genituen; eguerdian manifestazioa, Joxe Balerdiri omenaldia eta mosaiko erraldoia egin zituzten. Eguraldi txarrak hainbat ekintza bertan behera utzi bazituen ere, ezin izan zuen herritarren elkartasun oihua isildu.

Jon ALTUNA EGITEGI

Goazen Plazara ekimenak helburu askorik heldu ziren maiatzaren 19an. Besteak beste, Parot doktrina atzera botatzea, bizi osorako kartzela zigorra gaitzestea, gaixo larrien etxeratzea eta presoek eskubideen errespetua aldarrikatzea izan zuen xede elkartasun ekimen honek.

Manifestazioa eta mosaikoa

Goiza indartsu hasteko, herrikirolak izan ziren Okendo Plazan, Zubieta eta Lasarte-Oriako gazteak nor baino nor aritu ziren, lokotxetan, tron-

tzan...

Ostean, manifestazio jendetsua egin zuten herriko kaleetan barrena, ehundik gora lagun bildu ziren "Euskal presoak Euskal Herria, Bizi osorako espetxe zigorrik ez!!! Gaixo dauden presoak herri-arte", zioen pankartaren atzean.

Behin manifestazioaren ibilbidea bukatuta, Euskal Herriko plaza guztietan bezala, Lasarte-Orian ere argazki erraldoia atera zuten presoak herritarreko eskatuz.

Joxe Balerdiri omenaldia

Eguneko momenturik hunkigarriena herritarrek Joxe Balerdi, Juankar Balerdi pre-

soaren aita zendu berria omendu zutenekoa izan zen.

Hainbat herritar Okendo-ko oholtzara igo eta larrosa zuri bat utzi zuten bere argazkiaren aurrean, gainontzeko herritarren txalo artean.

Ostean, Beñat Iriondok testu bat irakurri zuen Herriaren izenean, presoek eskubideak errespetatzeko eskatu eta sakabanaketarekin amaitzeko exigituz.

Bazkari herrikoia

Hasiara batean, Okendon egin behar zuten bazkari herrikoia, baina eguraldi petrala tarteko, Xirimiri elkartearen egin zuten bazkaria.

Bazkalostean, mus txapelketa egin zuten herritarren artean eta giro onean jardun zuten enbidok.

Gauean, kontzerturik ez

Makulu Ken eta Aurka taldeen kontzertuak bertan behera geratu ziren, eguraldi txarraren ondorioz.



Ehundik gora lagunek manifestazioa burutu zuten herriko kaleetan barrena.



**ELECTRICIDAD
ARREGUI**



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

www.electricidadarregui.com

**Orain
sukaldeko tresneria
salgai !**





Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521